

# EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



**2022ko kirol errekorrak**

**2022ko marka berriak**

.....

**HERRI KIROLAK**

Gizonak

.....

# ALBISTEAK

→ <https://kirolerrekorrak.eus/urdax-magunazelaiak-irabazi-du-harri-handien-euskal-herriko-txapelketa/>

## **Urdax Magunazelaiak irabazi du Harri Handien Euskal Herriko Txapelketa**

2022.12.19 | EHKM, ERREKORRAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

Lehen aldiz hartu du parte abadiñarrak txapelketa honetan eta 25 urterekin txapelketaren historiako bigarren marka onena egin du

Pasa den larunbatean, Asteasun lehiatu zen, beste behin, Euskal Herriko Harri Handien Harri Jasotze Txapelketa, non orotara bederatzi harri jasotzailek parte hartu zuten: Jokin Eizmendi, Aimar Galarraga, Xabier Aranburu Guzta, Julen Diaz, Jon Unanue Goenatxo, Iñigo Eizagirre, Sergio Mielgo, Gorka Etxeberria eta Urdax Magunazelaia.

Harri jasotzaile bakoitzak lau harrirekin egin behar izan zuen saioa. Laukizuzena 175 kilokoa edo 200 kilokoa izan zen, zilindrikoa ere 175 kilokoa edo 200 kilokoa, kubikoa 150 kilokoa eta bola 125 kilokoa. Pisu bateko laukizuzena aukeratuz gero, zilindrikoa beste pisukoa izan behar zuen. Harri bakoitzarekin hiru minutuko saioa egin zuen bakoitzak.

Azkenean, Asteasuko Usarrabi frontoia lepo beteta zela, Urdax Magunazelaiak alde handiarekin irabazi zion Jokin Eizmendi zarauztarrari. Aimar Irigoienek faltan, bi faboritoak ziren eta pronostikoak bete zituzten.

Magunazelaiak 25 urte ditu eta duela gutxi itzuli da harri-jasotzera, sei urteko parentesiaren ondoren. Finaleko lau lanetan nagusi izan zen. Hamar jasoaldi eman zizkion 200 kiloko laukizuzenari, 14 175eko zilindrikoari, 14 150eko kubikoari eta 20 125eko bolari. Guztira, 9.050 kilo altxatu zituen 58 jasoalditan.

Eizmendi izan da txapeldun berriarengandik urrunegi ibili ez den bakarra lau harrietan, zarauztarrak bederatzi jasoaldi eman baitzizkion 200 kiloko laukizuzenari, 12 175eko zilindrikoari, 12 150eko kubikoari eta 16 125eko bolari.

Azaroan egin zen Gipuzkoako Harri Handien Harri Jasotze Txapelketa Zizurkilen, eta orduan Urdax Magunazelaia izan zen txapelduna ere. Bigarren postuan Jokin Eizmendi sailkatu zen eta hirugarren Iñigo Eizagirre izan zen.

Magunazelaiak ez zuen orainarte inoiz harri handietako Euskal Herriko Txapelketa jokatu. Abadiñokoa oso goiz, 17 urterekin, erretiratu zen, baina maila handira itzuli da. Aurten bada, lehen aldiz hartu du parte lehian eta garaipena gutxi balitz, 25 urterekin txapelketaren historiako bigarren marka onena egin du.

Guztira egindako jasoaldiak:

Urdax Magunazelaia 58 jasoaldi (laukizuzenari 10, zilindrikoari 14, kubikoari 14, bolari 20): 9050 kilo

Jokin Eizmendi 49 jasoaldi (laukizuzenari 9, zilindrikoari 12, kubikoari 12, bolari 16): 7700 kilo

Iñigo Eizagirre 40 jasoaldi (laukizuzenari 6, zilindrikoari 8, kubikoari 11, bolari 15): 6125 kilo

Xabier Aranburu Guzta 39 jasoaldi (laukizuzenari 6, zilindrikoari 9, kubikoari 10, bolari 14): 6025 kilo

Jon Unanue Goenatxo 37 jasoaldi (laukizuzenari 6, zilindrikoari 8, kubikoari 10, bolari 13): 5725 kilo

Aimar Galarraga 36 jasoaldi (laukizuzenari 5, zilindrikoari 9, kubikoari 7, bolari 14): 5375 kilo

Sergio Mielgo 30 jasoaldi (laukizuzenari 2, zilindrikoari 6, kubikoari 8, bolari 14): 4400 kilo

Julen Diaz 29 jasoaldi (laukizuzenari 5, zilindrikoari 7, kubikoari 8, bolari 9): 4550 kilo

Gorka Etxeberria 21 jasoaldi (laukizuzenari 3, zilindrikoari 5, kubikoari 5, bolari 8): 3225 kilo

→ <https://kirolerrekorrak.eus/euskal-herriko-harri-handien-txapelketa-jokatuko-da-larunbatean-asteasun/>

## **Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa jokatuko da larunbatean Asteasun**

2022.12.15 | EHKM, ERREKORRAK, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

Jasotako pisuari dagokionean, Irigoienek du markarik onena, 2008an 9.650 kilo jaso baitzituen, 62 jasoalditan banatuta. Garaipenen errekorra ere berea da, Juan Jose Unanue Goenatxo II.arenkin batera: 11 txapel bakoitza

Datorren larunbatean, hilak 17, lehiatuko da arratsaldeko 18:00etan Asteasun Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa, non guztira bederatzi harrijasotzaile arituko diren nor baino nor gehiago txapela janzteko asmoz: Jokin Eizmendi (egungo txapelduna), Urdax Magunazelaia, Iñigo Eizagirre, Jon Unanue Goenatxo III.a, Gorka Etxeberria, Xabier Aranburu Guzta, Aimar Galarraga, Julen Diaz eta Sergio Mielgo. Hamargarren bat ere aritzekoa zen, Aimar Irigoien alegia, baina errezildarra koadrizepseko lesio bat du urriaz geroztik, eta ez da garaiz osatu.

Harri astunenekin aritzeko ohitura dute aipatu parte hartzaileek eta finalean sasoiko harrijasotze lanik mardulenak egingo dituzte, federazioen txapelketei dagokienez, bederen. Harri jasotzaile bakoitzak lau harrirekin egin beharko du saioa. Laukizuzena 175 kilokoa edo 200 kilokoa izango da, zilindrikoa ere 175 kilokoa edo 200 kilokoa, kubikoa 150 kilokoa eta bola 125 kilokoa. Pisu bateko laukizuzena aukeratuz gero, zilindrikoa beste pisukoa izango da. Harri bakoitzarekin hiru minutuko saioa egingo du bakoitzak eta hamabost minutuko atsedena izango du lan batetik bestera.

Jasotako pisuari dagokionean, Irigoienek du markarik onena, 2008an 9.650 kilo jaso baitzituen, 62 jasoalditan banatuta. Orduz geroztik, inork ez du hobetu hori, eta zaila dirudi inork lortzea.

Hala ere, errezildarrak ez du aurtengo txapelketan parte hartuko eta beraz ezingo du bere hamabigarren txapela jantzi, hura baita harri handietan garaipenen errekorra duen harri jasotzailea, Juan Jose Unanue Goenatxo II.arenkin batera. Biek ala biek 11 garaipen eskuratu dituzte. Azkoitiarrak —bihar ariko den Goenatxo III.aren aita da— segidan irabazi zituen 1991tik 2001erako txapelketa guztiak. Errezildarrak 2006an jantzi zuen txapela estreinakoz, eta Goenatxoren kopuru bera lortu du 2020ra artean. Iaz ere ez zen aritu.

Irigoienek faltan, Eizmendi da faborito nagusia, izan ere, harri handietako txapela lau aldiz

jantzitakoa da zarautzarra. 2014an irabazi zuen estreinakoz; 2015ean, 2018an eta iaz lortu zituen gainontzekoak. Hain justu ere, hura nagusitu da 2006az geroztik Irigoien gailendu ez denean — 2011n ez zen jokatu—.

Txapelketako palmaresa:

Juan Jose Unanue “Goenatxo II”, 11: 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001.

Aimar Irigoien, 11: 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2012, 2013, 2016, 2017, 2019, 2020

Jose Antonio Gisasola “Zelai”, 6: 1984, 1985, 1986, 1987, 1988, 1989

Joseba Ostolaza “Ostolaza II”, 4: 2002, 2003, 2004, 2005

Jokin Eizmendi, 4: 2014, 2015, 2018, 2021

Jesus Mari Unanue “Goenatxo I”, 2: 1982, 1983

Angel Albizu “Soarte”, 1: 1957

Agustin Ostolaza “Ostolaza I”, 1: 1971

Jose Manuel Agirre “Endañeta”, 1: 1976

Iñaki Perurena, 1: 1981

Mieltxo Saralegi, 1: 1990

→ <https://kirolerrekorrak.eus/azkoitiko-kirol-markak-eta-erronkak/>

## **Azkoitiko kirol markak eta erronkak**

2022.12.12 | AIZKORA, ATLETISMOA, EHKM, ERREKORRAK, ERRONKAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK, XAKEA

Kirolari azkoitiarrek aurreko mendean egindako lehiaketa, marka eta apustu esanguratsuenen bilduma egin berri du Kepa Alberdik

Duela zenbait egun, Kepa Alberdik herri kirolean aritu ziren azkoitiar ezagunei buruzko artikulua idatzi zuen Maxixatzen.eus webgunean, bertan herrian azken hamarkadetan egin diren apustuak ere gogora ekarri dituelarik.

Herri kirolen jatorria garai bateko lan jardueretan bilatu behar dugu. Garai bateko nekazari, abeltzain, artisau, nahiz arrantzaleek ogibidez egiten zituzten zenbait lan, aisialdira bideratu eta pertsonaren indarrak, denborak eta trebeziak neurtzeko kirol bihurtu dira denborarekin.

Horren harira, kirolari azkoitiarrek aurreko mendean egindako lehiaketa, marka eta apustu esanguratsuenen bildumatxo bat egiten ahalegindu da Alberdi, horien artean honakoak azpimarratu daitezkeelarik:

—Aizkolaritzan: Arritte mendiko Korta baserrian jaiotako Jose Soraluze Korta izan zen, egindako markei begira, Azkoitiko lehen aizkolari ospetsua. Bere markarik handiena Azkoitiko plazan egin zuen 1910ean, 32 minutu azpiko denboran 36 ontzako hiru enbor ebakita errekor berria ezarri zuenean. 1915-1940 urteen bitartean, Ramon Astigarraga Errekalde, Jeronimo Iturbe Agiñeta eta Antonio Soraluze Korta izan ziren, herriko aizkolaririk handienak. 1940-1980 urte bitartean, Juan Jose Narbaiza Luxia eta Isidro Astigarraga Errekalde junior izan ziren

aizkolari iaioenak.

–Harrijasotzean: Azkoitiko herriak entzute handiko harri-jasotzaileak ere eman ditu, eta horietako batzuk idatzita daude kirol horren errekorren liburuan. 1936ko gerra aurreko aizkolaririk aipagarrienak Jose Manuel Usula eta Inazio Larrañaga Etxezakorta izan ziren; kubo tankerako harriarekin egin zituzten erakustaldirik bikainenak, garai hartan oso gutxi izanik harri mota horrekin lanean aritzea nahi izaten zutenak. Gerora, Jesus Mari Unanue Goenatxo I izan zen herriko harri-jasotzailerik entzutetsuena, eta bere anaia Juan Jose Unanue Goenatxo II.ak hartu zuen gero honen erreleboa. Izan ere, azken horrek 1991tik aurrera ez zuen izan parekorik Harri Handien Txapelketan, eta lehiaketa hori 11 aldiz jarraian irabazi zuen, 1991 eta 2001 urteen artean. Igeldoko harria jasotzen ere ez zuen izan aurkaririk 1993 eta 2003 urteen artean, eta 2022an oraindik ere errekorra den 19 jasoaldiko marka egin zuen. Amezketako 166 kiloko Albitzuri Handi harri irregularrarekin ere aurkaririk ez zuen izan, eta 1996an egin zizkion 15 jasoaldi haiei esker, oraindik ere errekorra berea da.

–Joko Nahasiak: baserritarrek egiten zituzten lanak uztartuta, herri kirolen barruan, joko nahasiko lehiaketak egiteko ohitura kontutan hartzekoa da ere. Modalitate horretan, 1940ko hamarkadan, Tomas Astigarraga Katalotza azkoitiarra izan zen kirolaririk ezagunena. 1942an Azpeitiko zezen plazan Juan Kortajarena Ondartzaren kontra jokatu zuen lehia izan zen bere saio adierazgarrienetako bat. Apustu horretan, honako lana egin behar izan zuten: 25 aldiz kubo tankerako 125 kiloko harria jaso; 72 ontzako sei enbor ebaki; 60 buelta eman zezen plazari. Harri jasotzen 9 minutu eta 15 segundo, aizkoran 64 minutu eta 23 segundo eta lasterkan 28 minutu eta 19 segundo egin ondoren, Katalotzak irabazi zuen apustua. Kirol mota honetan bazen beste gizon indartsu bat ere: Jabier Etxaniz Katuingo txatue. Gizon indartsu honek egundoko erakustaldiak egin zituen. Horietako batean, 1.017 kiloko pisua zuen urez betetako barrika lurretik jaso zuen eta, beste agerraldi batean, aldi berean beso batekin zaldiaren indarrari eta beste besoarekin zortzi gizonen indarrari eustea lortu zuen. Ez ziren hor bukatu gizon indartsu haren erakustaldiak, beste agerraldi batean 45 milimetroko ohol baten ukabilkada batez puntapaxa alde batetik bestera pasatzeko gai izan baitzen.

Beste kirol diziplina batzuei dagokionez, atletismoan, bi korrikalari ikaragarriak eman ditu Azkoitiko herriak: Lino Aldalur Pikua eta Diego Garcia. Lehenak, 1949an, Azkoitiko Matadeitik Azpeitiko Arana auzora arteko joan-etorria 25 minutu eta 26 segundotan egin zuen, errekorra jarritz. Hamarkada batzuk geroago, Diego Garciak hobetu zuen marka hori, baina kontuan izan behar da Pikuak abarketekin egin zuela bere marka eta, besteak beste, prestaketarako, egunero bi txuleta eta bi dozena arrautza gorringo jaten zituela. Xehetasun horiek ez diote inolako meriturik kentzen garai guztietako azkoitiar antxintxikolari onena izan den Diego Garcia handiari, hark egundoko markak ezarri baitzituen. Esate baterako, 1992an, Japoniako Fukuoka hiriko maratokia 2 ordu, 10 minutu eta 30 segundotan amaitu zuen. Joko xelebreak ere izan dira korrika saioei dagokienez, eta horietako baten protagonista Agustin Domenech Erribera izan zen: kaletik Azkarate gainera erlojuaren kontrako saioa egin zuekn hark, baina berezitasun batekin: eskalaproak (kranpoiak) jantzita. Apustua irabazi eta lasterketa mota horretan Azkarate mendiko errekorra berak du harrez gero. Gizonezko korrikalariak alde batera utzita, izan zen besteen gaintik azaldu zen emakume korrikalari bat ere: Estefania Uranga Laxao. 1945ean, oraindik neska gaztea zela, Aritza baserriko Pedro Arrietaren kontrako apustua egin zuen hark: Aittolako gurutzetik mendian behera jaitsi eta berriz behetik gorako ibilaldi gogorra egin zuten. Aritzako mutila indar handikoa eta zimela izan arren, Urangak irabazi zuen baldintza berberetan jokaturako lehia.

Xakean, nola ez, Jose Luis Larrañaga bikaina aipatu behar da. Xakelari honek, 1982ko abuztuaren 27, 28 eta 29an, plusmarka berria jarri zuen, eta Guinness liburuan sartu zen. Aurreko marka Branimir Brebich kanadarrak zuen, eta azkoitiarrak, 31 ordu eta 42 minutuko lanean, marka hautsi zuen. Abuztuaren 27an, larunbat arratsaldeko 17:00etan hasi zen, eta, igande eguerdian krisialdi handi bat izan bazuen ere, kemen ikaragarriaz gaintitu zuen hura, eta etengabeko jarduera hartan, 605 partida jokatzera heldu zen azkoitiarrak: horietatik 535 partida irabazi zituen, 42 berdindu eta 28 partida bakarrik galdu.

Azkenik, leku berezi bat egin behar zaio Jexux Oteiza Kasero arrantzaliari. Izan ere, 1988 eta 1991 urteen artean, proba miresgarriak egin zituen, eta indarra eta erresistentzia izugarriak erakutsi zituen hark. Kaserori apustua egin zion lagun talde batek 1998an: sei ordutan 28 kilo pisatzen zuen butano-bonbona betea bizkarrean hartu eta Erlo mendi gailurrera (1.033 metro) ezetz igo. Kaserok errez irabazi zituen apustuan jokatzeko ziren 10.000 pezeta, hiru ordu azpitik eginez ibilbidea. 1990ean beste apustu bat egin zuen, eta oraingoan, sei ordutan Hernio mendiko gailurrera heldu behar zuen butano-bonbona betearekin. Aurrekoan baino ibilaldi askoz luzeagoa izan arren, bost ordu eta bost minutu behar izan zituen erronka gaintzeko, apustua irabaziz eta berezko kirolari gisa zituen dohain, ahalmena eta ezaugarri bikainak erakutsiz.

Artikulu osoa irakurtzeko sakatu HEMEN

→ <https://kirolerrekorrak.eus/aizkoraren-munduak-merezitako-omenaldia-egin-dio-donato-larretxeari/>

## **Aizkoraren munduak merezitako omenaldia egin dio Donato Larretxeari**

2022.12.3 | AIZKORA, EHKM, ERREKORRAK, HERRI KIROLAK

Baztandarrak 1995ean lorturiko hamalau kanaerdikoen errekor historikoa Iker Vicentek gainditu zuen 2020. urteko ekainaren 14an, 25 urtez indarrean egon eta gero

Argazkia: herrikirolak.eus

Donato Larretxea Lizardi (1960ko apirilaren 24a), hainbat txapel eta apustu irabazitako aizkolariak, herritarren omenaldia jaso zuen larunbatean Arantzan, bere jaioterrian. Besteak-beste, hirutan izan da Euskal Herriko txapelduna, eta zortzi aldiz irabazi du Nafarroako Txapelketa eta hainbat eta hainbat marka ezarritakoa da.

Arantzako Bordalarrea auzoko Perikoaren Borda baserrian jaioa, aizkora izan da bere pasioa 18 urtetatik, eta 48 eman ditu enborrak moztzen, betiere mendian egiten zuen lanarekin uztartuz.

Aizkorak gora hartu zuten Larretxea, Zubietako joaldunen aurretik. Arantzako Udalak eta Gure Kirolen Klubak antolatutako omenaldira ez ziren falta izan berarekin neurtu diren aizkolari asko, gazteagoak ere bai, eta auzokideak zein lagunak, besteak beste: Leon Albeniz Iruntxiberri, Iker Vicente, Miel Mindegia, Joxe Ignacio Orbegozo 'Harria II', Igor Duñabeitia, Jose Mari Olasagasti, Floren Nazabal, Peñagarikano, Xaraxo, P. Mindegia, Boros, Basozabal, Telletxea, Rodriguez II, Sorondo, Astiazaran, Maika Ariztegi, Beatriz Tanco, Oihan, Gari eta Oier Larretxea, Zaldua, H. Ezpeleta, Ugaitz Mugerza eta abar.

1995. urteko abuztuaren 15ean Donostian egin zuen hamalau kanaerdikoen errekorra Larretxeak, 25 urtez iraun zuen marka historikoa ezarriz, harik eta 2020. urteko ekainaren 14an Iker Vicentek gainditu zuen arte, hain zuzen ere. Otsagabiko aizkolariak 26 minutu eta 46 segundo erabili zituen lana osatzeko, eta 31 segundoan hobetu zuen Donato Larretxeak ezarritako marka. Orduko hartan, Larretxeak 27 minutu eta 17 segundoko denboran ebaki zituen kanaerdikoak.

Donato Larretxeak bere ibilbide luzean lorturiko sariak, honakoak:

Banakako txapelketak

Euskadiko Txapelketa (3): 1997, 2003, 2006

Gazte mailakoa (1): 1979

Nafarroako Txapelketa (8): 1990, 1995, 1996, 1997, 1998, 2003, 2004, 2011

Donostiako Urrezko Kopa (4): 1989, 1995, 1997, 2002

Urrezko Aizkora (3): 2002, 2003, 2005

Binakako txapelketak

Euskadiko binakako txapelketa (1): 1988an Sator Salbidearekin.

Nafarroako binakako txapelketa (5): Felix Etxeberria (1996, 1998), Antonio Jaunarena (1997), Antonio

Senosiain (2001) eta Juan Jose Barberenarekin (2004)

Binakako Urrezko Aizkora (5): Mikel Mindegia (2003), Xabier Mindegia (2004), Aitzol Atutxa (2008, 2009) eta Ohian Larretxearekin (2010)[1][2]

Ramon Latasa saria (4): 2009, 2012, 2013, 2015

→ <https://kirolerrekorrak.eus/izeta-vi-ak-sekulako-erakustaldia-eman-eta-marka-berria-ezarri-zuen-euskal-pentatloi-sarian/>

## **Izeta VI.ak sekulako erakustaldia eman eta marka berria ezarri zuen Euskal Pentatloi Sarian**

2022.09.26 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, HERRI KIROLAK

31:36ko denborarekin lanak amaituta, iaz baino ia bi minutu gutxiago, Euskal Pentatloi Sariaren aro berriko errekorra erdietsi zuen aiarrak

Argazkia: egursport.com

Andoni Iruretagoiena Izeta VI.ak sekulako erakustaldia eskaini zuen pasa den larunbatean Azpeitiko zezen plazan, V. Pentatloi Sariko finalean. Iaz lortutako txapela defendatu zuen aiarrak, eta garaipena errepikatzea lortu zuen, proba 31:36ko denborarekin amaituta, iaz baino ia bi minutu gutxiago behar izan zituelarik lanak amaitzeko. Hartara, Euskal Pentatloi Sariaren aro berriko marka berria ezarri zuen.

Guztira, sei herri kirolari aritu ziren nor baino nor gehiago hiruko bi txandatan, irailaren 3ko finalaurrekoan egindako denboren arabera banatuta: Joseba Otaegi, Ioritz Gisasola Zelai IV.a, Aritz Irazabal, Julen Gabirondo, Andoni Iruretagoiena Izeta VI.a eta Xabier Zaldua:

Aurreneko txandan, Joseba Otaegi, Ioritz Gisasola Zelai IV.a eta Aritz Irazabal lehiatu ziren lehen txandan. Bigarrenengan, aldiz, Julen Gabirondo, Andoni Iruretagoiena Izeta VI.a eta Xabier Zaldua.

Egin beharreko lanak honakoak: 100 kiloko bolari 25 jasoaldi egin, giza proban 400 kiloko harriarekin bi plaza egin, aizkoran hiru kanaerdiko ebaki, 50 kiloko txingekin sei plaza egin eta zezen plazari 30 buelta eman lasterka (hiru kilometro).

Faborittoa zen Izeta VI.a eta ez zuen hutsik egin, nagusitasunez jantzi zuelarik txapela aiarrak, bost probak inoizko azkarren amaituta (31:36). Marka horrekin iaz berak lorturiko errekorra (ordurarte Gabirondoren eskuetan zegoena) hautsi egin zuen, orduko hartan 33 minutu eta 29 segundo erabili baitzituen egin beharrekoak osatzeko. Gabirondo sailkatu zen bigarren eta (32:43) Zaldua (32:58) hirugarren.

Emakumezkoetan berriz, Nerea Arrutik ere balentria ederra lortu zuen, hark jokaturiko aurreneko finalean. Hiru finalistek (Karmele Gisasola Zelai III.a, Nerea Arruti eta Lucia Orbe) egin behar izan zituzten lanak honakoak izan ziren: 63 kiloko bola hamabost aldiz jaso, giza proban 250 kiloko harriarekin plaza bat osatu, 45 ontzako bi enbor moztu, 35 kiloko txingekin lau plaza bete, eta korrika kilometro eta erdi egin.

Azkenean garaipena eskuratu zuen Arrutik bere estreinaldian, pentatloiko bost probak 21:09 minututan amaituta. Zelai III.ak ezin izan zuen iaz irabazitako txapela defendatu, eta bigarren sailkatu zen 23:22 denborarekin. Orbek osatu zuen podiuma, proba guztiak 25:17 denboran amaituta.

Iaz lehiaturiko Emakumezkoen Pentatloi Txapelketaren lehenengo edizioan Karmele Gisasola Zelai III.a nagusitu zen, 18 minutu eta 57 segundotan amaitu zituelarik probak. Mallabiarraren errekorra ezin izan zuen ondu beraz, aurtengo irabazleak.

→ <https://kirolerrekorak.eus/eizmendi-garaile-elgoibarko-harri-jasotze-txapelketan-izeta-ii-aren-marka-berdinduz/>

## **Eizmendi garaile Elgoibarko Harri Jasotze Txapelketan, Izeta II.aren marka berdinduz**

2022.08.28 | EHKM, ERREKORRAK, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

30 jasoaldirekin, Joxe Ramon Iruretagoiena Izeta II.a-k ezarrita zeukan marka berdindu zuen zarauztarrak

Pasa den larunbatean, hilak 27, jokatu zuten Elgoibarko Harri Jasotze Txapelketaren XXII. edizioa herriko plazan, Belaustegi eta Mintxeta harriekin, eta Eizmendik lortu zituen jasoaldi gehien, 30ekin.

Zortzi harri jasotzaileek hartu zuten parte aurtengo lehian, ia denak Izetaren eta Ostolazaren eskolakoak: Xabat Olaizola, Jokin Eizmendi, Imanol Royo Lartain, Aimar Galarraga, Paulo Aspiazu, Mikel Lopetegi Urrea, Beñat Telleria eta Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a.

Bi harri baldarrekin egin behar izan zituzten lanak, Belaustegi (145,4 kilo) eta Mintxeta (124,6 kilo) harriekin, bakoitzarekin 5 minutuko txanda osatuz.

Denek ere lan bikaina egin zuten, baina Jokin Eizmendi zarauztarra nabarmendu zen, 30 jasoaldirekin, altxaldi kopuru horrekin, Joxe Ramon Iruretagoiena Izeta II.a-k ezarrita zeukan marka berdindu zuelarik. Edonola ere, antolatzaileak ez zeuden seguru harrien jasoaldiak nola izan ziren sasoi hartan.

Bigarren postuan, Mikel Lopetegi Urrea geratu zen 24 jasoaldirekin, eta hirugarren, berriz, Beñat Telleria 20 jasoaldirekin. Gainerako parte hartzaileak 20 altxalditik behera geratu ziren. Imanol Royo, 10 altxaldi burututa, izan da Orain arte harri hoiak jasotako harrijasotzailerik gazteena.

### Sailkapena

Jokin Eizmendi: 30 altxaldi (13 Belaustegi / 17 Mintxeta)

Mikel Lopetegi Urrea: 24 altxaldi (10 Belaustegi / 14 Mintxeta)

Beñat Telleria: 20 altxaldi (6 Belaustegi / 14 Mintxeta)

Paulo Aspiazu: 19 altxaldi (3 Belaustegi / 16 Mintxeta)

Aimar Galarraga: 18 altxaldi (8 Belaustegi / 10 Mintxeta)

Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a: 16 altxaldi (5 Belaustegi / 11 Mintxeta)

Xabat Olaizola: 15 altxaldi (3 Belaustegi / 12 Mintxeta)

Imanol Royo Lartain: 10 altxaldi (2 Belaustegi / 8 Mintxeta)

Joxerramon Iruretagoiena, ezizenez Izeta II.a (Aia, Gipuzkoa, 1967ko martxoaren 12a) sega-jokoan aritu izan zen gartzetan baina gero harriari ekin zion. 150 txapelketatik gora irabazi zituen eta erretiratu zenean hamasei errekor zituen, batez ere 100 eta 138 kiloko harri kubikoarekin. Erretiratzeko 50-50-50 marka egin zuen Zarautzen, hau da, 50 urte beteta 100 kiloko kubikoari 50 jasoaldi eta 100 kiloko zilindrikoari 50 jasoaldi.

Elgoibarko Txapelketan, 2013ko abuztuaren 31n erdietsi zuen aurten Eizmendik berdindutako errekorra, orduko sailkapena honela geratu zelarik:



- 1.- Jose Ramon Iruretagoiena "Izeta II" 30 altxaldi (10 + 20)
- 2.- Joseba Ostolaza 28 altxaldi (11 + 17)
- 3.- Iban Ugartemendia 22 altxaldi (9 + 13)
- 4.- Hodei Iruretagoiena "Izeta IV" 17 altxaldi (6 + 11)
- 5.- Jesus Mari Iruretagoiena "Izeta III" 16 altxaldi (2 + 14)
- 6.- Bernardo Ureta "Urpe" 8 altxaldi (2 + 6)

→ <https://kirolerrekorrak.eus/euskal-herriko-harri-txikien-txapelketako-errekorra-birrindu-du-urrak/>

## **Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketako errekorra birrindu du Urrak**

2022.08.22 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA

Zarauztarrak marka guztiak hautsi ditu guztira 14.100 kilo altxatuta, berak 2018an ezarritako aurreko errekorrean baino ia 600 gehiago

Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatuta, 1993tik egiten den Euskal Herriko Harri Txikien txapelketa lehiatu zen pasa den ostegunean Gernikan, non bost partehartzaile aritu ziren nor baino nor gehiago txapela janzteko asmoz: Xabat Olaizola (Zarautz), Mikel Lopetegi Urrea (Zarautz), Paulo Aspiazu (Bergara), Iraitz Arruti (Zarautz) eta Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a (Zarautz).

Egin beharreko lanak, hiru minutuko txandetan arituta, ahalik eta jasoaldi gehien egitea lau harriekin: 125 kiloko harri laukizuzena eta pisu bereko zilindrikoa, 112,5 kiloko (bederatzi arroa) kubikoa, eta 100 kiloko bola.

Mikel Lopetegi Gereka "Urre"-k (Zarautz, 1997) ikaragarria egin zuen beriro ere, Euskal Herriko Harri Txikien txapelketa bosgarrenez irabazita, eta nola gainera, sekulako erakustaldia emanda eta marka guztiak hautsita.

Bera zen faborito nagusia eta aurreikuspenak bete soilik ez, hobetu egin zituen erabat zarauztarrak, izan ere, 2018an berak ezarritako marka hautsi egin baitzuen, orduko hartan baino ia 600 kilo gehiago altxatuz: 14.100 kilo.

2018ko azaroaren 11an Laukizen jokatu zuten Harri Txikien Euskadiko Txapelketa. Aimar Irigoien errezildarrak irabazia zuen txapelketa azken bederatzi urteetan, baina ezin izan zuen bere hamargarren txapela lortu, Mikel Lopetegi Urrea gailendu baitzen. Harri guztien altxaldiak batuta, 116 altxaldi egin zituen Urrak, guztira, 13.512,5 kilo altxatu zituelarik. Aimar Irigoienek 2009an ezarritako marka hobetu zuen beraz, 150 kiloko aldearekin.

2018tik hona Urrak irabazi ditu txapel guztiak. Aurten gainera, egun gutxitan hiru txapelketetan hartu du parte (larunbatean Igeldoko Harrian, astelehenean Mallabiko Harrian eta ostegunean Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketan) baina hala ere bere onena eman eta marka ikaragarria ezarri zuen Gernikako saioan.

2022ko sailkapena:

1 Mikel Lopetegi Urrea 14.100 kilo, 121 altxaldi

2 Paulo Aspiazu 11.775 kilo, 102 altxaldi

3 Xabat Olaizola 11.110 kilo, 95 altxaldi

4 Hodei Iruretagoiena 11.050 kilo, 95 altxaldi

5 Iraitz Arruti 9.075 kilo, 78 altxaldi

Euskal Herriko Harri Txikien txapelketaren palmaresa

Aimar Irigoien, 9 garaipen (2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2015, 2017)

“Zelai”, 7 garaipen (1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999)

“Izeta II”, 4 garaipen (2000, 2002, 2004, 2005)

“Urta”, 5 garaipen (2018, 2019, 2020, 2021, 2022)

“Ostolaza II”, 2 garaipen (2003, 2006)

Inhar Urruzuno, 2 garaipen (2014, 2016)

→ <https://kirolerrekorrak.eus/goenatxoren-errekorra-indarrean-mantentzen-da-igeldoko-harria-txapelketan/>

## **Goenatxoren errekorra indarrean mantentzen da Igeldoko Harria txapelketan** 2022.08.14 | EHKM, ERREKORRAK, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA

1992 urteaz geroztik izen bereko 134 kiloko oboide eiteko harri irregularrarekin ospatzen den harrijasotze probako aurtengo edizioan Mikel Lopetegi Urta nagusitu da 17 altxaldirekin, baina Jokin Goenatxok 2012an ezarri zuen errekorretik bi jasoaldira geratu da, Goenatxok 19 jasoaldi egin baitzituen orduko hartan

Igeldoko harria 1992 urteaz geroztik izen bereko 134 kiloko oboide eiteko harri irregularrarekin ospatzen den harrijasotze proba da, zeinean bost minututan altxaldi gehien egiten dituen harrijasotzaileak irabazten duen.

Aurtengo lehiari guztira sei harrijasotzaile aritu dira nor baino nor gehiago Donostiako Trinitate plazan: Paulo Aspiazu (Oñati), Jokin Eizmendi (Zarautz), Gorka Etxeberria (Orio), Mikel Lopetegi (Zarautz), Xabat Olaizola (Zarautz) eta Beñat Telleria (Lasarte).

Faboritoen artean ziren Eizmendi eta Urta zarautzarrak eta, azkenean, gazteenak eraman du txapela etxera.

Mikel Lopetegi Urrak iaz Jokin Eizmendik egindako altxaldi kopurua berdindu zuen eta hamazazpi altxaldirekin, bera da txapeldun berria. Orain arte, zazpi alditan irabazia zuen Eizmendik txapelketa entzutetsua, baina honakoan, hamabost altxaldi eginda, ezin izan zuen garapena errepikatu. Paulo Aspiazuk 14 jasoaldi egin zituen, eta Gorka Etxeberriak, Beñat Telleriak eta Xabat Olaizolak sailkapena itxi zuten.

Urrak aurreko txapeldunaren marka historiko onena berdindu zuen beraz (17 altxaldi), baina Jokin Goenatxok 2012an ezarri zuen errekorretik bi jasoaldira geratu da, Goenatxok 19 jasoaldi egin

baitzituen orduko hartan.

Sailkapena:

Mikel Lopetegi – 17 jasoaldi  
Jokin Eizmendi – 15 jasoaldi  
Paulo Azpiazu – 14 jasoaldi  
Gorka Etxeberria – 12 jasoaldi  
Beñat Telleria – 11 jasoaldi (pisu gutxiago)  
Xabat Olaizola – 11 jasoaldi

→ <https://kirolerrekorrak.eus/eneko-otanok-eta-aitzol-atutxak-irabazi-dute-ramon-latasa-memoriala/>

## **Eneko Otañok eta Aitzol Atutxak irabazi dute Ramon Latasa Memoriala**

2022.08.14 | AIZKORA, EHKM, ERREKORRAK, ERRONKAK, GIZONAK, HERRI KIROLAK

Ramon Latasa, historiako aizkolari onenetakoa eta erronkazale zein errekor ezberdinen jabearen oroimenez antolatzen den herri kirol jaialdi hau pasa den larunbatean lehiatu zen Sunbillan

Aitzol Atutxa eta Eneko Otaño nagusitu ziren larunbatean Sunbillan (Malerreka) jokatu zen Ramon Latasa Memorialaren XIX. edizioan, pandemiarengatik bi urtez antolatu gabe egon ostean. Hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako ahalik eta azkarren moztea zen parte hartzaileek egin beharreko lana, eta garaileek 30:19ko denbora egin zuten. Julen Alberdi 'Txikia IV.a' eta Ugaitz Mugerza izan ziren bigarren 31:52rekin, Mikel Larrañaga eta Jon Rekondo hirugarren (34:40) eta Iker Vicente eta Jon Irazu laugarren (35:05).

Aurtengo nobedade gisa, gainera, aizkolari emakumeak ere lehiatu ziren. Irati Astondoa eta Laine Pikabea 10:21eko denborarekin gailendu zitzaizkien Nerea Sorondo eta Uxue Ansorregiri.

Ramon Latasa Elizondo Sunbillako Aguria baserrian sortu zen, 1930eko maiatzaren 23an, familia xume batean. Aita basoko lanean aritzen zen, idi parearekin enborrak ateratzen. Eskola laster utzirik, aitari laguntzen hasi zen. 17 urterekin Iratiko oihanera joan zen lanera. Langile bizkorra zen eta sekulako trebetasuna zuen aizkorarekin.

Melillan, soldadutzan zegoela, harrapatu zuen afrikar sukarretik sendatu orduko, berriz ere oihaneko lanari lotu zen. 25 urterekin, lankideek beroturik, lehenbiziko apustua jokatu eta irabazi zuen Lekunberrin. 1959ko apirilaren 26an, Luxia-ren aurkako apustu mitikoa irabazi zuen, Donostiako zezen-plazan. Zezen-plaza bete zuten, 17.890 pertsona, eta jende asko kanpoan geratu zen, apustu batean inoiz izandako ikusle kopururik handiena izan zelarik. 500.000 pezeta jokatu ziren alde bakoitzetik, ordura arte ikusi gabeko zerbait. Latasak erraz irabazi zuen eta denak aho zabalik utzi zituen egindako erakustaldiagatik.

«Lexoti» bertsolaria apustu honetan oinarritu zen bertso batzuk osatzeko: «Naparra lanian ikusitako zenbaitek esan genduan: «gure Jainkuak len olakorik izan da ote du munduan», orrek egurra ebakitzen du zerra makinan moduan, aundiyak txiki gelditzen dira Ramón Latasa 'n onduan, odol beroko azkoitiarra orra nola utzi duan».

Urte horretako ekainaren 14an, beste balentria handi bat egin zuen Lekeition: 5 metro eta 15 zentimetroko zirkunferentzia zuen eukalpto enborra 3 ordu eta 17 segundotan ebaki zuen. Orain arte inork ez du horrelako enbor bat moztu, eta errekor hori historiarako geratu da. Handik aurrera, zenbait urtez jaun eta jabe izan zen aizkora probetan.

1963ko urtarrilean, kontrabandoan ari zirela, guardia zibilekin topo egin zuten. Latasa, paketea

lurrera botata, ihesi joan zen, baina guardia zibil baten tiroak izterrean jo zuen. Etxera iritsi eta han sendatzen saiatu bazen ere, azkenean medikuarengana joan behar izan zuen. Iruñean operatu zuten, eta urte bat behar izan zuen sendatzeko. Guzti horrek gastu eta diru galera handiak ekarri zizkion.

Polipasoren aurka jokatu zuen ondoko apustua, 1964ko abenduan, eta gipuzkoarra nagusitu zen. Handik aurrera gorabehera handiak izan zituen bere jardueretan. Kontuan hartu behar da mendian oso gogor aritzen zela lanean, eta ez zela beti sasoi betean plazara ailegatzen. Belaunaldi berrietako aizkolari asko harekin ibili ziren ikasten: Miguel Berakoetxea, Patxi Astibia, Arria II.a, Mikel Mindegia... Arria II.a lagun zuela irabazi zuen, hain zuzen ere, lehenbiziko txapela, 1966ko Espainiako binakakoa. 1967an Espainiako banakakoa irabazi zuen, 1968an Espainiako zutikako txapelketa, eta 1974an Espainiako binakakoa Teodoro Irazusta Usategieta-rekin. Hori izan zen haren azken saioa. Azken urteak Elizondoko zahar etxean igaro zituen, gaitzak jota. Han hil zen, 1991ko otsailaren 25ean, 60 urte zituela.

2002tik aurrera, urtero Ramon Latasa saria antolatzen da Sunbillan. Horrez gain, 2007an inauguratutako herriko plaza berriak Ramon Latasa plaza izena du. Bertan aizkolari handi horren eskultura bat dago.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/andoni-iruretagoienak-ezarri-du-gipuzkoako-pentatloi-txapelketare-lehen-marka-ofiziala/>

## **Andoni Iruretagoienak ezarri du Gipuzkoako Pentatloi Txapelketaren lehen marka ofiziala**

2022.08.9 | EHKM, ERREKORRAK, HERRI KIROLAK, MARKAK

Bost probez osatutako lehia izan zen eta proba guztiak jarraian egin behar izan zituzten, Izeta VI.a izan zelarik lan guztiak amaitzen azkarrena: 25 minutu eta 44 segundo.

Pasa den igandean, abuztuaren 7an, jokatu zen Gipuzkoako Pentatloi txapelketa Irungo Urdanibia plazan, 11:30ean hasita. Guztira zazpi kirolari aritu ziren txapelaren bila lehian, eta guztiak sekulako erakustaldia eskaini zuten: Iñaki Errazkin, Joseba Otaegi, Xabier Zaldua, Jagoba Otaegi, Andoni Iruretagoiena, Julen Gabirondo eta Aratz Mugerza.

Bost probez osatutako lehia izan zen eta proba guztiak jarraian egin behar izan zituzten, bat amaitu arte ezin zutelarik hurrengoarekin hasi:

-Harri jasotzea (hogei altxaldi 100 kiloko harri biribilari)

-Giza proba (bi plaza 400 kiloko harria arrastaka –plaza bakoitza 24 metro ingurukoa da–)

-Aizkolaritza (45 ontzako bi enbor eta 54ko bat)

-Txingak (lau plaza 50 kiloko txingak eskuetan)

-Korrikaldia (2 kilometro)

Lehen aldiz izaera ofiziala izan zuen Gizonezkoen Gipuzkoako Pentatloi Txapelketak eta beraz lehenengo marka ofiziala ezarri zuen irabazleak, Izeta VI.ak alegia: 25 minutu eta 44 segundo.

Xabier Zalduak minutu bat gehiago behar izan zuen lan guztiak amaitzeko, 26 minutu eta 41 segundo, hain zuzen. Hirugarren Julen Gabirondo helmugaratu zen, Iñaki Errazkinentzat izan zen laugarren postua, Joseba Otaegi izan zen bosgarren, Jagoba Otaegi seigarren eta Aratz Mugerza zazpigarren.

## SAILKAPENA

- 1 Andoni Iruretagoiena 25 minutu eta 44 segundo
- 2 Xabier Zaldua 26 minutu eta 41 segundo
- 3 Julen Gabirondo 28 minutu eta 57 segundo
- 4 Iñaki Errazkin 29 minutu eta 32 segundo
- 5 Joseba Otaegi 29 minutu eta 48 segundo
- 6 Jagoba Otaegi 33 minutu eta 12 segundo
- 7 Aratz Mugerza II.a 34 minutu eta 24 segundo

→ <https://kirolerrekorrak.eus/marka-propioa-ezarri-du-mikel-lopetegi-urrak/>

### **Marka propioa ezarri du Mikel Lopetegi Urrak**

2022.08.1 | EHKM, ERREKORRAK, ERRONKAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

125 kiloko zilindroari 42 jasoaldi egin zizkion hiru minutuan, hartara zazpi altxalditan hobetu zuelarik aurreko erregistrorik onena

Harri txikietan parekorik ez du Mikel Lopetegi Urra-k (Zarautz, 1996). Azken lau urteetan berak irabazi du Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa, eta Euskal Herriko lehia ere laugarren aldiz jarraian irabazi zuen iazko abenduan. Pasa den uztailaren 13an, onena den horretan mugarri berri bat ezartzen ahalegindu zen harri-jasotzaile zarautzarra, bere herriko Lege Zaharren enparantzan.

Aurretik halako marka saiakerak egindakoa zen Urra, izan ere, hiru minututan 100 kiloko zilindro zaharrarekin ahalik eta altxaldi gehien ematen ahalegindu zen duela lau urte, Aiako probalekuan, 43 jasoaldi egin zituelarik orduko hartan.

Oraingoan, zilindro berriari egin zizkion altxaldiak Urrak. Zaharra zilindro-zilindroa da eta harri txikien kategorian sartzen da. Heldulekuak badauzka, baina eskuzuloen bolumenak litro eta erdi neurtu dezake gehienez ere. Hori baino bolumen handiagoko zulodun harriak ez dira zilindro zahar kontsideratzen. Teknika aldetik zailagoa da zaharra altxatzen. Berriari kopa esaten zaio, eta harekin grabitate zentroa aldatu daiteke norberaren gorputzaren arabera.

Bere entrenatzaileak, Jose Ramon Iruretagoiena Izeta II.a, aholkatuta animatu zen Urra erronkari aurre egitera, izan ere, sasoi betean dago zarautzarra eta une egokia zen horretarako.

Ez zen lan makala Lopetegik aurretik zuena baina ez zuen hutsik egin eta aise gainditu zuen errekorra. Berea zen ere aurretik zegoen marka, martxoan Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketan egindakoa. Baina txapelketan hiru harri erabiltzen dira, orain arte inor ez zelarik ahalegindu harri zehatz horrekin hiru minutuan ahalik eta altxaldi gehien egiten.

Guztira 42 jasoaldi eman zizkion Urrak hiru minutuan 125 kiloko zilindro berriari, dozenaka ikusleren aurrean. Bere marka propioa ondu zuen beraz zarautzarrak, zazpi altxalditan hobetuz. Esan bezala, Urrak berak ezarri zuen orain arteko markarik onena joan den maiatzaren 22an, Gipuzkoako

Harri Txikien txapelketan zilindroari 37 altxaldi eman ostean.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/julen-gabirondok-euskal-herriko-bosgarren-sega-txapela-irabazi-du-bixente-mitxelenaren-errekorra-berdinduz/>

## **Julen Gabirondok Euskal Herriko bosgarren sega txapela irabazi du, Bixente Mitxelenaren errekorra berdinduz**

2022.07.23 | EHKM, ERREKORRAK, GIZONAK, HERRI KIROLAK

Urnietarrak bere bosgarren txapela jantzi zuen zehazki, 2015ean, 2017an, 2018an eta 2021ean irabazi ondotik eta txapelketako palmaresaren goialdean kokatu da, Bixente Mitxelena oiartzuarrarekin batera

Julen Gabirondok (Urnieteta, 1989) joan den igandean Aiako Andatza auzoan ospatu zen Euskal Herriko ohiko sega txapelketa irabazi zuen. Gipuzkoako laugarren txapela jantzi berria, Euskal Herriko bosgarrena eskuratzeko xedea zuen Gabirondok eta faborittoa izanik, ez zuen hutsik egin Euskal Herriko herri kirolen federazioak antolatutako norgehiagokan.

Urnietarrak bere bosgarren txapela jantzi zuen zehazki, 2015ean, 2017an, 2018an eta 2021ean irabazi ondotik. Igandera arte Bixente Mitxelena oiartzuarra zen historian Euskadiko sega txapelketa gehien zituen segalaria, baina Gabirondok errekor hori berdindu zuen.

Ordubeteko saioan 2.092 kilo belar moztu zituen Gabirondok. Bigarren postuan Iban Pardo zestoarra izan zen; 1.967 kilo belar ebaki zituen. Hirugarren Mikel Lizartza tolosarra geratu zen (1.902 kilo). Laugarren eta azken postua Jon Otegi izan zen, 1.770 kilo belar ebaki baitzituen.

Ordubetearen belar gehien biltzea, horixe zen Aiako Andatza auzoko Arizterrazuko belardietan lau segalariak zuten egitekoa. Tenperatura altuak egin arren, segalari guztiek lan ederra egin zuten, sailkapena honela geratu zelarik:

- 1- Julen Garondo (Urnieteta) 2092kg belar ebakita.
- 2- Iban Pardo (Zestoa) 1947k, 20kg-ko penalizazio batekin.
- 3- Mikel Lizartza (Tolosa) 1902kg.
- 4- Jon Otegi (Oiartzun) 1770kg, 20kg-ko penalizazio batekin.

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko irabazleak nabarmen hobetu zuen iaz txapela irabazteko egindako kopurua (1820 kilo), orduko hartan bere osaba Joxe Gabirondoren marka berdindu zuelarik, lau aldiz txapeldun izatea alegia.

Aurtengo garaipen honekin beraz, urnietarra txapelketako palmaresaren goialdean kokatu da, Bixente Mitxelenarekin batera, guztira bost txapel jantzita.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/aimar-irigoienek-marka-berria-ezarri-du-etxauri-harriarekin/>

## **Aimar Irigoienek marka berria ezarri du Etxauri harriarekin**

2022.06.14 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA

Errezildarrak 18 jasoaldirekin marka berria ezarri du, Irigoienek berak 2013an, 2017an eta 2019ko azken edizioan lortutako 17 altxaldiko marka hobetuz

Igande honetan, ekainak 12, eguerdiko 13.00etan, Etxauriko Harri Zaharraren Jasotze Txapelketaren 17. edizioa ospatu zuten berriro Etxaurin bertan, Etxauriko udalak eta Lurgorria kultur elkarteak antolatuta. Pandemiak eragindako hiru urteko etenaldiaren ondoren, bost harri-jasotzaile lehiatu ziren saria nork eskuratuko: harriaren pisua ardo botiletan. Etxauriko Harriak 136,5 kg pisatzen dituzenez, garaileak 136 botila zeuden jokoan.

Etxauriko harria landugabeko harri bat da, 136 kilo eta erdikoa. Irregularra izaki, zaila da jasotzen. 136 kiloko harri hori, apustuak egiteko erabiltzen zuten antzina herrian, ardo botilak jokatuz. Harria desagertu egin zen, ordea, eta 1999an berreskuratu egin zuten. 2005. urtean hasi ziren urteroko txapelketa antolatzen, naiz eta estreinakoz 2000. urtean altxatu zen, urte hartan hildako Alberto Lakosta Etxauriko aizkolariaren omenaldian. Horrexegatik, 2005az geroztik, Alberto Lakosta Memoriala deitzen zaio txapelketari.

Parte hartzaileak honako hauek izan ziren: Aimar Irigoien errezildarra, Jokin Eizmendi zarauztarra, Madrilgo Sergio Mielgo madrildarra, Goenatxo III.a azkoitiarra, eta Imanol Royo zarauztarra.

Patxi Larretxea arraioztarra izan zen txapelketako lehen irabazlea, hamar jasoaldirekin, baina gerora Irigoien izan da jaun eta jabe eta historiako jasoaldi errekorra ere ezarri duena, 2013an, 2017ean eta 2019ko azken edizioan lortutako 17 altxaldiko markarekin eta aurten egindako 18 jasoaldiekin.

Harri-jasotzaileek bost minutu izan zituzten eta altxalditan berdinketa egonez gero, pisu gutxien zuena izango zen irabazlea. Baina ez zen halakorik suertatu eta Aimar Irigoien nagusitu zen. 36 urteko harri-jasotzaileak lehiaketa sei aldiz irabazteaz gain, 18 altxaldirekin marka berria ezarri zuen.

### **SAILKAPENA**

1 Aimar Irigoien 18 jasoaldi

2 Jokin Eizmendi 16 jasoaldi

3 Jon Unanue “Goenatxo III.a “ 12 jasoaldi

4 Sergio Mielgo 12 jasoaldi

5 Imanol Royo “Lartain” 5 jasoaldi

→ <https://kirolerrekorrak.eus/gorka-etxeberriak-eta-andoni-iruretagoienak-binakako-euskal-pentatloiaren-errekorra-hautsi-dute/>

## **Gorka Etxeberriak eta Andoni Iruretagoienak Binakako Euskal Pentatloiaren errekorra hautsi dute**

2022.06.13 | EHKM, ERREKORRAK, GIZONAK, HERRI KIROLAK

Bikoteak 40 segundotan hobetu du aurrez ezarria zegoen marka, iaz Andoni Iruretagoienak berak bere osaba

Jexux Mari Iruretagoienarekin batera lortu zuena

Igande honetan, ekainak 12, jokatu zen Tolosako zezen plazan III. Gizonezkoen Binakako Euskal Pentatloi finala, bertan lau bikote aritu zirelarik lehian txapelaren bila: Xabier Zaldua eta Jagoba Otaegi; Aritz Irazabal eta Bernat Amade; Gorka Etxeberria eta Andoni Iruretagoiena Izeta VI.a; eta Aratz Mugertza eta Julen Kañamares.

Bost proba egin behar izan zituzten kirolariek: 100 kiloko bolari berrogei jasoaldi eman, giza proban 400 kiloko harriarekin lau plaza egin, aizkoran lau kanaerdiko moztu, txingekin zortzi plaza egin eta lau kilometro korrika.

Azkenean, Izeta VI.a eta Etxeberria izan ziren azkarrenak, 39 minutu eta 45 segundotan amaitu baitzituzten lanak. Gainera, iaz Andoni Iruretagoienak berak bere osaba Jexux Mari Iruretagoienarekin batera II. Mahala Binakako Euskal Pentatloi finalean egindako marka (40 minutu eta 24 segundo) haustea lortu zuten. Nagusitasunez irabazi zuten norgehiagoka, eta 40 segundotan hobetu zuten aurrez ezarria zegoen marka.

Bigarren tokian Xabier Zaldua Banakako txapelduna eta Jagoba Otaegi sailkatu ziren, hiru minutu eta hiru segundora eta hirugarren Amade eta Irazabal bizkaitarrak izan ziren hiru minutu eta 39 segundora. Finaleko laukotea Mugertza III.ak eta Kañamares III.ak osatu zuten, 46 minutu eta 40 segundoko denbora egin zutelarik.

Sailkapena

1 Gorka Etxeberria eta Andoni Iruretagoiena 39:45

2 Xabier Zaldua eta Jagoba Otaegi 42:48

3 Aritz Irazabal eta Bernat Amade 43:23

4 Aratz Mugertza eta Julen Kañamares 46:40

→ <https://kiolerrekorrak.eus/iker-vicenteren-erronka/>

## **Iker Vicenteren erronka**

2022.04.16 | AIZKORA, EHKM, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK

Donato Larretxea baztandarrak 1995ean lorturiko marka historikoa gainditu zuen 2020. urteko ekainaren 14an, aizkolaritzaren historian beste lorpen bat eskuratuz

Iker Vicentek hamalau kanaerdikoen marka berria ezarri zuen, Larretxeak duela mende laurden lorturikoa hobetuz

Iker Vicente Saralegi, aizkolaria ogibidez eta afizioz, Otsagabian jaio zen 1997ko ekainaren 15ean. Daniel Vicente aizkolariaren eta Maribi Saralegiren (herri kirol munduari oso lotuta dagoen persona) semea da.

2020. urteko ekainaren 14an, Covid19 gaitzak eragindako etenaldiaren ondorengo lehen herri kirol jaialdian, marka saiakera burutu zuen Vicentek, bere jarduna gertutik jarraitzeko 180 bat lagun bildu zirelarik (Vicentek berak gonbidatutako jendea) Nafarroa Arenako harmailetan.

Erronka saiakera zaila zuen aurretik Otsagabiako aizkolariak, Larretxearen marka 25 urtez indarrean egon bada, marka oso ona zelako izan da eta (Donato Larretxeak 1995. urteko abuztuaren 15ean Donostian egin zuen errekorra). Gainera, hiru hilabeteko konfinamenduaren eraginez behar bezala entrenatzeko aukerarik gabe heldu zen Vicente, eta bakarkako lanean gainditu behar zuen Larretxearen errekorra, bestelako aurkarien erreferentziarik gabe.



Azkenean, Otsagabiko aizkolariak 26 minutu eta 46 segundo erabili zituen lana osatzeko, eta 31 segundoan hobetu zuen duela 25 urte Donato Larretxeak ezarritako marka. Orduko hartan, Larretxeak 27 minutu eta 17 segundoko denboran ebaki zituen kanaerdikoak eta oraingoan Vicentek 26 minutu eta 46 segundu behar izan ditu lan berdina osatzeko.

Indartsu hasi zuen saioa Otsagabiakoak, lehenengo enborra minutu eta hamalau segunduko denboran moztu zuen, 2'45'' erabili zuen bigarrenengan, 4'24'' hirugarrenean eta 6'10'' laugarren kanaerdikoan. Hamar minutuko denbora betetzeko segundu baten faltan, seigarren kanaerdikoa moztu zuen eta lanaren erdialdera 11 minutu eta 51 segundutan iritsi zen, denbora horretan ebaki baitzuen zazpigarren enborra.

Handik aurrera eta nekearen eraginez, bi minuturen bueltan ibili zen hurrengo enborretan eta hamaikarrena amaitu zuenerako 19'52'' denboran zebilen. Hamabigarren kanaerdikoa mozteko bi minutu eta hamabost segundo erabili zituen, beraz lan guztia osatzeko oraindik bost minutu baino gehiagoko tartea zuen aurretik.

Azkenurreko enborran 2 minutu eta 25 segunduko denbora baliatu zuen, saiakera hasi zenetik orotara 24'32'' eginda, eta azkenekoa mozteko 2 minutu eta 14 segundo behar izan zituen, hartara 26 minutu eta 46 segundutan finkatua utzi zuelarik marka berria, aizkolaritzaren historian beste lorpen bat eskuratuz.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/mieltxo-saralegi-da-pisu-gehien-altxatu-duen-harri-jasotzailea/>

## **Mieltxo Saralegi da pisu gehien altxatu duen harri-jasotzailea**

2022.04.4 | ERREKORRAK, GIZONAK, HARRI-JASOTZEA, HERRI KIROLAK

329 kiloko bloke angeluzuzena bizkarrean berdintzea lortu zuen 2001eko apirilaren 28an, Lekunberrin. Inork ez du egundo marka hori gainditzetik izan

Mieltxo Saralegi Arribillaga (Leitza, Nafarroa, 1968ko otsailaren 2a) harri-jasotzaileak du errekorra harri-jasotzean. 2001eko apirilaren 28an Lekunberrin 329 kiloko harria jaso zuen, eta harrez gero inork ez du marka hori gainditzetik izan.

Beste hiru harri-jasotzailek bakarrik lortu dute 300 kiloko langa gainditzea historian:

Iñaki Perurena Gartziarena (Leitza, 1956ko irailaren 23a) : 320 kiloko harria altxatu zuen 1994ko otsailaren 5ean Donostiako belodromoan, Euskadiko Sei Orduen barnean.

Inaxio Perurena Zubitur (Leitza, 1984ko urtarrilaren 10a) : 308 kiloko harria altxatu zuen 2016ko apirilaren 23an Leitzako Amazabal pilotalekuan.

Iñaki Otaegi 'Gibitegi' (Goiatz, Gipuzkoa, 1958ko urriaren 6a) : 300 kiloko harri laukizuzena bizkarrean berdindu zuen 1993ko urtarrilaren 10ean Zizurkilen.